



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko apirilaren 9a

52. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—“Mendetasunari buruzko Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrola Nafarroan” izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**“Mendetasunari buruzko Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrola Nafarroan” izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko martxoaren 31n eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, “Mendetasunari buruzko Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrola Nafarroan” izeneko, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko martxoaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**“Mendetasunari buruzko Legeko ordainketen kudeaketa eta kontrola Nafarroan” izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburuak eta norainokoa (4. or.).
- III. Ondorioak eta gomendioak (5. or.).
- IV. Egindako lanaren azterketa xehaketa (8. or.).
  - IV.1. Mendetasunari buruzko legeko onuradunei egindako ordainketen kudeaketa- eta kontrol-prozedura (8. or.).
  - IV.2. Mendetasuneko prestazioa edo/eta zerbitzua ebazteko epeak (14. or.).
  - IV.3. Onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendetasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzeko nafarroan aplikatzen den araudia, berdintasunaren printzipioa bete dadin bermatzeko (15. or.).
  - IV.4. Nafarroak Estatutik jasotako finantzaketa mendetasunari buruzko legea aplikatzeagatik, 2009-2013 aldiaren (17. or.).
  - IV.5. Nafarroaren eta IMSERSOren arteko lan-kidetza printzipioaren betetzea SISAADI igorritako informazioaren kontrolean eta etengabeko gaurkotzean (19. or.).

## I. SARRERA

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak (aurrerantzean Mendetasunari buruzko Legea) mendetasun-egoeran dauden pertsonentzako arretarako eta haien autonomia pertsonalen sustapenerako oinarrizko baldintzak ezartzen ditu. Araupetze horrek zenbait babes maila ezartzen ditu:

- Estatuko Administrazioak ezarritako eta ziurtatutako gutxieneko babes maila.
- Bigarren maila Estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzak eta finantzaketa-araubidea da.
- Hirugarren maila osagarria da: autonomia erkidegoek garatu beharko dute, nahi badute.

Halaber, Legeak orobat ezartzen du gaitasun ekonomikoa kontuan hartuko dela zerbitzuaren kostuaren zer zati ordainduko den eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa zehazteko.

Aurreko guztiak berarekin dakar finantzaketaren arloko hiru eragilek esku hartzea: Estatuak, kasuko autonomia erkidegoa eta prestazioen edo/eta zerbitzuen onuradunak.

Kontuen Ganberak, 2013ko maiatzetik ekainera, bi txosten egin zituen Mendetasunari buruzko Legea dela eta. Zehazki, egoitza-arretaren eta eguneko arretaren zerbitzuak eta lege horren 2008-2012 aldiko aplikazioa aztertu zituen.

Egindako txostenak osatze aldera, Nafarroako Kontuen Ganberak beharrezkotzat jo zuen onuradunentzako ordainketen sistemari eta Estatutik jasotako finantzaketari sakontzea, eta lan hori 2014ko fiskalizazio programan sartu zuen.

Bestalde, Kontuen Epaitegiak, bere eskumenen esparruan, 2013ko fiskalizazio-programan txosten bat sartu zuen honako gaiari buruz: "*autonomia erkidegoek hartu dituzten kudeaketa- eta kontrol-neurriak, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen aplikazio egokia egiteko*".

Nafarroan, Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioa Gizarte Politiketako Departamentuak kudeatzen du, zehazkiago, Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak (PANA).

PANAn hiru atal daude Mendetasunari buruzko Legeko laguntzak kudeatzen dituztenak: Prestazioen Koordinazio Administrazioaren Atala, Adinekoentzako Zerbitzuen Atala eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala.

Kudeaketa dela-eta kontuan hartu beharreko alderdi bat da ezen, estatuaren esparruan, Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioari buruzko informazioa Autonomiarako eta Mendetasunaren Arretarako Sistemaren Informazio Sistemari (SISAAD), Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) kudeatzen, biltzen dela, eta bertan onuradunak, prestazioak, horien aldaketak eta abar jasotzen direla. Aplikazio informatiko hori autonomia erkidegoek erabiltzen dutenaz bestelakoa da. Nafarroaren kasuan, informazioa onuradunen eta prestazioen kudeaketarako datu base batean jasotzen da, Prestazioen eta Gizarte Zerbitzuen Sistema Integratua deitutakoan (SIPSS), eta Gizarte Politiketako Departamentuak kudeatzen du.

Landa-lana 2014ko urtarriletik otsailera egin dute auditoria-teknikari batek eta auditore batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan lankidetzarekin.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarrenean, lanaren helburuak eta norainokoa azaltzen dira; hirugarrenean, txostenaren ondorioak eta gomendioak; eta laugarrenean, azkenik, aurreko atalaren edukia lortzeko egin den lana deskribatzen da.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu PANAn eta Gizarte Politiketako Departamentuko langileei.

## II. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honekin, ondoko helburuak bete nahi izan ditugu:

- Mendetasunari buruzko Legeko prestazioen edo/eta zerbitzuen onuradunei egindako ordainketen kudeaketa- eta kontrol-prozedurak aztertzea.
- Finkatzea ea mendetasunaren egoeraren aitorpena eta prestazioaren aitorpen efektiboa gehieneko epe gisa ezarritako sei hilabeteko epearen barruan egiten diren.
- Aztertzea onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendetasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzeko Nafarroan aplikatzen den araudia, herritarren arteko berdintasunaren printzipioa bete dadin bermatzeko.
- Egiaztatzea ea Nafarroak Estatutik jasotzen duen finantzaketa 2009-2013 eperako araudiak ezarritakoa den.
- Egiaztatzea autonomia erkidegoen eta IMSERSOREN artean lankidetzaren printzipioa egoki betetzen den Nafarroako kasuan, SISAADera igortzen den informazioa kontrolatzeari eta etengabe gaurkotzeari dagokienez.

Honakoa izan da egindako lanaren norainokoa:

- SIPSSen datu basea.
- Foru araudi berariazkoa, onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendetasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzeari buruzkoa.
- 2009-2013 aldiaren, PANAK Estatutik jaso dituen diru-sarrera aitortuak.
- Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioarako kudeaketa ekonomiko-finantzarioa dela-eta Kontuen Epaitegiak 2013ko martxoan igorritako txostena.

Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioaren arloko balizko irregulartasunak antzemateko jarraitu den prozeduran lortutako emaitzak aztertzeko eta bidegabeki jasotako kopuruen itzulketarako eskatzeko, 2007tik 2013ko apirilaren 30era doan aldia hautatu dugu, Kontuen Epaitegiak alderdi horiei buruz egindako txostenean ezarritako denbora esparruarekin bat egiteko eta datu homogeneoak emateko. Ez dugu beharrezkotzat jo emandako denbora-norainokoa zabaltzea; izan ere, IV.5 atalean zehaztu bezala, 2013ko urtarriletik aurrera jarraitutako prozedurak ez dira egokitzat jo.

SIPSSetik bidegabeki kobratutakoen ordainketa-gutunei buruzko informazioa lortzeko prozesuan zehar, aurkitu da datu base horrek ez duela beti informazio egokia eskaintzen, zeren eta ez baititu gutun horiekin egindako izapide guztiak biltzen. Hasieran, hori muga bat izan zen norainokoari dagokionez, baina horri konponbidea eman ahal izan zitzaion Departamentuan dauden beste datu base batzuetatik informazioa ekarri eta laguntzak kudeatzen dituzten beste atal batzuekin lan eginez.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako bereziki egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

### III. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, egindako lanetik ateratako ondorio eta egindako gomendio nagusiak azalduko ditugu:

#### 1. Mendetasunari buruzko Legeko onuradunei egindako ordainketen kudeaketa- eta kontrol-prozedura

PANAK Mendetasunari buruzko Legearekin lotutako laguntzak kudeatzeko ardura duten hiru atal dauzka. Onuradunek bidegabe kobratzea eragin dezaketen zenbait egoera gerta daitezke: heriotza, prestazioaren aldaketa, mendetasun graduaren edo mailaren aldaketa, borondatezko baja eta abar.

Onuradunei egindako bidegabeko ordainketa horiek kontrolatzeko prozedurak eskasak izan ziren PANAREN atal batean 2011ko urrira arte, eta, halaber, eskasak beste ataletan 2013ko urtarri-lera arte. Data horietatik aurrera, ordea, prozedurak nahiko egokiak izan dira.

2007tik 2013ko apirilaren 30era doan aldian, bidegabeko kobrantzak direla-eta SIPSSek sortutako ordainketa gutunak 1.155 izan ziren guztira eta 995.416 euroko zenbatekoa egin zuten (prestazio aktiboaren ehuneko 1,33); horietatik ehuneko 44 prestazio-aldaketa bati zegozkion, onuraduna egoitza batean sartzearen ondorioz, eta ehuneko 38, berriz, onuradunaren heriotzari.

2014ko urtarrilaren 31n, honakoa zen ordainketa-gutun horien egoera:

	Guztira	Kobratuak		Izapidetzen		Betearazte-bidean		Jarraipena egiteko daudenak			
								Iraungiak*		Iraungi gabeak	
		Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa
Ordainketa-gutun kopurua	1.155	759	66	21	2	45	4	26	2	304	26
Ordainketa-gutun zenbatekoa	995.416	541.161	54	13.681	1	98.211	10	25.691	3	316.672	32

\* Diru-laguntzen ordainketa iraungitzeko epea lau urtekoa da eta kontabilitate-erantzukizunarena, berriz, bost urtekoa.

Ikusten den bezala, bidegabeko kobrantzen bidez sortutako zenbatekoaren ehuneko 54 kobratu da; ehuneko 35 jarraipena egiteko dago; ehuneko 10 betearazte-bidean dago eta gainerako ehuneko bata izapidetzen ari da. Jarraipena egiteko dauden gutun zenbatekotik, ehuneko zortzi iraungita dago eta gainerakoa dela eta, PANAK jada behar diren lanak hasita dauzka hura kobratzeko behar diren lanak.

#### 2. Mendetasuneko prestazioa edo/eta zerbitzua ebazteko epeak

2013an aurreko urteen aldean hobekuntzaren bat izan ondoren, mendetasunaren prestazioa edo/eta zerbitzua ebazteko batez besteko epea 9,15 hilekoa izan zen.

Balizko onuradunak dokumentazioa zuzentzen eman dezakeen denbora kenduta, hori ez bailitzateke izanen PANAREN ardurapekoa, 2013ko otsailean eta martxoan batez besteko epea 6,71 hilabetekoa zen. Adierazle hori nahiko hurbil dago araudian ezarritako sei hilabeteko epea.

#### 3. Berdintasunaren printzipioa betetzea onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendetasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzerakoan

Gaur egungo foru araudiak parametro batzuk erabiltzen ditu onuradunen gaitasun ekonomikoa eta mendetasunaren kosturako ekarpena, errenta, ondarea (desgaitasuna duten pertsonen kasuan izan ezik) eta familia unitatea finkatzeko.

Gainera, garrantzia duten beste alderdi batzuk hartuko lirateke kontuan; esate baterako, berme erreal edo pertsonalak jartzea zorraren sorrerari aurre egiteko, baldin eta onuradunak prestazioaren zenbatekoa guztiz ordaintzen ez badu; prestazio bakoitzerako ordaindu beharreko gutxieneko eta gehieneko kostu batzuk; mendetasunaren kostuaren finantzaketan ekarpenetik salbuetsita dauden errenta-gutxieneko batzuk, eta mendetasuna duen pertsonak gutxieneko errenta bat erabil dezaten bermatzeko araubidea.

Egindako azterketatik ondorioztatzen da araudiaren irizpideak bermatzen dutela herritarren artean eta ekarpena egiteko gaitasunaren arloan berdintasunaren printzipioa betetzea.

#### 4. Nafarroak Estatutik jasotako finantzaketa Mendetasunari buruzko Legea aplikatzeagatik (2009-2013)

Nafarroak Mendetasunari buruzko Legearen aplikaziorako 2011ko eta 2012ko ekitaldietan jasotako finantzaketaren egitura, Ganbera honen aurreko txostenetan azertu zen bezala, honako eskemari dagokio:

	2011		2012	
	Zenbatekoa (eurotan)	Finantzaketaren ehunekoa Eragilearen arabera	Zenbatekoa (eurotan)	Finantzaketaren ehunekoa eragi- learen arabera
Nafarroako Gobernuaren gastua	107.699.700	70	95.669.268	69
Prestazioen erabiltzaileen kuotak	32.226.048	21	30.503.209	22
Estatuaren ekarpena	13.081.123	9	12.569.028	9
<b>Guztira</b>	<b>153.006.871</b>	<b>100</b>	<b>138.501.706</b>	<b>100</b>

Ikusten den bezala, Mendetasunari buruzko Legea Nafarroan aplikatzeak dakarren gastuaren finantzaketa dela eta, Estatuak ehuneko 9 eta 10 bitarte jartzen du, gutxi gorabehera. Finantzaketa hori urtero onuradun bakoitzarentzat araututako gutxieneko mailaren arabera kalkulatzeko da, daukan mendetasun graduaren eta mailaren arabera, betiere autonomia erkidego bakoitzak SI-SAADI igorritako informazioaren arabera.

2009-2013 aldian, Nafarroak 75,88 milioi euro jaso zituen Estatutik. 2013ko finantzaketa 11,59 milioi eurokoa izatera iritsi zen, 2009ko urtearekin alderatuta ehuneko 46ko jaitsiera izan ondoren, funtsean gutxieneko maila jaistearen ondorioz.

2013ra arte, PANAK Estatuaren likidazioei buruz jasotzen zuen informazioak aukera ematen zuen jasotako kopurua zuzena zen ala ez egiaztatzeko. 2013ko otsailetik aurrera, berriz, hilero fitxategi bat igortzen da, informazio gehiagorekin. Informazio horrek, behin kasuko prozedura ezarri ondoren, aukera ematen du egiaztatzeko likidazioa egokia den ala ez.

Gizarte Politiketako Departamentuak informazio historikoa eskatu zion IMSERSOri, 2007ko apiriletik gaur arte onuradun bakoitzeko egindako likidazioak egiaztatze aldera. Txosten hau egiteko garaian, 2013ko azarora arteko informazioa eman da. Egiaztatu da alde ugari daudela PANAREN eta IMSERSOren oinarrien artean. Haiek, izan ere, aztertu eta erregularizatu beharko lirateke.

Azken batez, onuradunek emandako banakako informazio egokirik ez dagoenez, ezin izan da egiaztatu 2009-2013 epean Nafarroak Estatutik jasotako finantzaketa zuzena izan den, araudian ezarritako irizpideei erreparatuta.

Gutxieneko maila arautzen duen 1050/2013 Errege Dekretuak indarra hartearekin, autonomia erkidegoek dauzkaten onuradunak justifikatzeko sistema bat ezarri zen, zeinak berarekin baitakar ezin izanen dela alderik egon datu baseen artean, eta, halakorik egonez gero, autonomia erkidegoak ez duela Estatuaren finantzaketarik jasoko harik eta haiek ebatzi arte.

Aurrekoari gehitu behar zaio Nafarroak 5,8 milioi euro jaso zituela Estatutik Estatuak ekonomia eta enplegua dinamizatzeko emandako funts berezitik. Funtse hori, izan ere, 9/2008 Errege

Lege-dekretuan araututa dago. Kopuru hori mendetasunari arretea ematearekin lotutako jarduketarako bideratu da; azkenean, 5,7 milioi gastatu ziren.

### **5. Nafarroaren eta IMSERSOren arteko lankidetzaren printzipioaren betetzea SISAADi igortzeko informazioaren kontrolean eta etengabeko gaurkotzean**

Kontuen Epaitegiak 2013ko martxoko txostenean zehaztu bezala, Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioaren hasieran Nafarroak IMSERSOri SISAADerako igortzen zion informazioak gorabehera asko eragin zituen datuetan, eta horrek bere eragina izan zuen finantzaketa dela-eta.

Hartara, Nafarroak 8,06 milioi euro inguru jaso zituen Estatutik bidegabeki, 75,88 milioi euroko guztizko kopuru batetik. Kopuru hori erregularizatzen joan da.

Aurrekoa gorabehera, denbora iragan den neurrian, nabarmen hobetu dira aplikazio informatikoak eta prozedurak. Gaur egun, esan daiteke Nafarroak nahiko ongi betetzen duela SISAADekin kontrolerako lankidetzaren printzipioa eta hari informazio gaurkotua bidali behar izateari dagokiona.

Atera ditugun ondorioak kontuan hartuz, bada, aholku hauek ematen ditugu:

- *Ahal den bezain azkar prozedura bat ezartzea, zeinak aukera emanen baitu aztertze eta depuratzeko Nafarroak jaso behar zuen finantzaketaren eta egiazki jaso zuen finantzaketaren arteko alderaketatik heldu diren aldeak, Estatuarekin behar den kopurua erregularizatzeari begira, kontuan izanda, gainera, jada hauteman diren baina konponbidean dauden gorabeherak.*

- *Estatuko Administrazio Orokorrari itzultzea bidegabeki jasotako kopurua, Estatutik ekonomia eta enplegua dinamizatzeko jasotako funtsetatik heldu dena, saiheste aldera kopuru hori handiagoa izan dadila berandutza-interesaren eraginez.*

- *Ahal den bezain laster jarraipen egokia egitea gauzatzeko dauden ordainketa-gutunen gainean, eta beharrezkoa bada bere garaian egindako kobrantzaren kudeaketa-prozedura hobetzea, haiek iraungi daitezen saihesteko.*

- *Berriki hasitako konpentsazio metodoarekin jarraitzea, prestazioak aldi berean gertatzen diren kasuetan, bidegabeko ordainketak itzultzeko espedienteek sortzen dituzten izapide administratiboak saihesteko.*

- *SIPSSen datu basean behar den informazio guztia sartzeko, Mendetasunari buruzko Legeko onuradunen egoera erreal eta gaurkotua erakutsi dezan.*

#### IV. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Ondoren, egindako lana deskribatzen dugu, hain zuzen ere aurreko ondorio eta gomendioetara eraman gaituena, haiek hobeki ulertze aldera:

##### IV.1. MENDEKASUNARI BURUZKO LEGEKO ONURADUNEI EGINDAKO ORDAINKETEN KUDEAKETA- ETA KONTROL-PROZEDURA

Pertsona batek mendetasunarekin lotutako laguntza ekonomiko bat jasotzen duen denboran, onuradunek bidegabeko kobrantza batzuk jasotzea eragin dezaketen egoera batzuk gerta daitezke. Honakoak dira, nagusiki:

- Prestazioa aldatzea, onuraduna egoitza batean edo eguneko zentro batean sartzearen ondorioz.
- Onuraduna hiltzea.
- Mendetasun-gradua edo -maila aldatzea.
- Borondatezko baja.
- Prestazioak bateraezinak izatea.
- Zerbitzuari lotutako prestazioa kobratzen hastea.
- Akats administratiboak.
- Tarifak gaurkotzea.
- Beste arrazoi batzuk: onuraduna beste autonomia erkidego batera joatea, haren gaitasun ekonomikoa aldatzea, zorraren erregularizatzeak, aldi baterako egonaldiak eta abar.

Laguntzak kudeatzen dituzten atalek, oro har, modu automatikoan eta berehala ezagutzen dituzte bidegabeko kobrantzak sor ditzaketen arrazoiak, onuradunaren espedientea ebatzi ondoren.

Hala eta guztiz ere, onuraduna hiltzeko kasuan, 2011ko abuztura arte, aipatu dugun bezala, PANAK horren berri izaten zuen jakinarazten zitzaionean. Data horretatik aurrera, ordea, prozedura nabarmen hobetu da, aipatu den bezala egunero informazioa gurutzatzen delako.

Mendetasunari buruzko Legea aplikatzen hasi zenetik gaur egun arte, irregulartasunen bat aurkituz gero, honako prozedura erabili izan da:

a) *Prestazioen Koordinazio Administratiborako Atala*: mendetasuna duten pertsonak beren etxebizitzan geratu ahal izateko laguntzak, gutxieneko laguntzak eta laguntza pertsonalak kudeatzen ditu.

Onuradunak bidegabeko kopuruak kobratu dituela hautemateko erabilitako prozedura honako hau da: laguntza ekonomikoaren azkentzeari buruzko txosten teknikoa ematen da, eta itzuli beharreko kopurua zehazten da. Azkentzeak eragina izateko data baja eragin duen egitatea gertatzen den hilabeteko azken eguna da, zeren eta sistemak ez baitu biderik ematen ordainketak egunez egun deuseztatzeko; bai, ordea, hilabetez hilabete. SIPSS sistema informatikoak automatikoki ordainketa-gutun bat sortzen du, inguruabar horiek detektatzen dituzenean. Laguntza azkentzeko ebazpen bat ematen da, eta bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko erreklamazio bat egiten da, non aipatzen baita ordainketa modu zatikatuan egin daitekeela. Prestazio ekonomikoaren azkentzeak indarra hartzeko data 1/2011 Foru Legeko 25.2 artikuluan jasotakoa da.

2011ko urrira arte, ebazpen hori interesdunari igortzen zitzaion, eta ez ziren kudeatzen bazilik bidegabeko ordainketa guztien kobrantza. Alabaina, data horretatik aurrera, atalaren prozedurak aldatu dira, eta ebazpenarekin batera ordainketa-gutun bat bidaltzen hasi da, jasoagiriarekin, onuradunak kasuko kopurua itzul dezan. Baldin eta lehenengoarekin lortzen ez bada, bigarren jakinarazpen bat egiten da, onuradunarekin harremanetan jartzerik izan ez bada ediktua NAOn argitaratzen da eta borondatezko epe ematen da, hilabetekoa, ordaintzeko. Zenbatekoa itzultzen ez bada, espedientea Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Diru-bilketa Zerbitzura igortzen da, betearazpenaren bidetik kudea dezan. Baldin itzulketa zatikatzeko eskatzen bada, eskari hori aurreko zerbitzuari igortzen zaio, izapide dezan.



*b) Adineko Pertsonentzako Zerbitzuen Atala eta Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala:* atal horiek adineko pertsonentzat nahiz desgaitasuna dutenentzat kudeatzen dituzten laguntza nagusiak eguneko laguntzaren eta egoitza-laguntzaren zerbitzuak dira, besteak beste.

Bi atal horietan, bidegabeko kobrantzak detektatzen direnetik laguntza azkentzeko ebazpena eman eta bidegabeki jasotako kopuruak itzultzeko eskatu arte jarraitzen den prozedura Prestazioen Koordinazio Administratiborako Atalean jarraitutako bera da. Ebazpena eman ondoren, hasieran ordainketa-gutun bat bidaltzen zitzaion onuradunari, baina ez zuen jaso-agiririk izaten. Gero, ebazpena bidaltzen zen, baina ordainketa-gutunik gabe.

2013ko urtarriletik aurrera, ordea, prozeduran berriz ere jasotzen da ordainketa-gutuna bidali beharra dagoela, eta jaso-agiriarekin, eta Prestazioen Kudeaketa Administratiborako Atalean deskribatutakoaren antzeko jarraipen bat egiten da.

Azken batean, bidegabeko ordainketak kontrolatzeko prozedurak eskasak izan ziren atal batean 2011ko urrira arte, eta, halaber, eskasak izan ziren beste bi ataletan 2013ko urtarrilera arte. Data horietatik aurrera, ordea, prozedurak nahiko egokiak dira.

Honakoak izan ziren SIPSSek sortutako ordainketa-gutunen kopurua eta zenbatekoa, urteka, bidegabeko kobrantzen arabera, 2007tik 2013ko apirilaren 30era doan aldirian:

	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013/04/03	Orokorra, guztira
Prestazioen Koordinazio Administrazioarako Atala								
<i>Familia inguruneko zainketa-arako laguntza ekonomikoa</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	3	7	47	147	157	129	32	522
Zenbatekoa	6.014,37	8.179,83	75.954,44	184.186,09	159.194,56	101.136,41	14.730,57	549.396,27
<i>Etxeko laguntza ekonomikoa</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	-	1	2	-	-	-	3
Zenbatekoa	-	-	3.937,14	3.449,64	-	-	-	7.386,78
<i>Mendetasuna dutenentzako gutxieneko laguntza</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	12	51	43	9	5	-	120
Zenbatekoa	-	8.900,75	33.629,09	27.114,60	9.491,41	11.728,89	-	90.864,74
Adineko Pertsonentzako Zerbitzuen Atala								
<i>Adineko pertsonentzako eguneko arreta</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	1	-	3	10	15	16	2	47
Zenbatekoa	502,11	-	1.521,32	1.928,45	16.695,30	10.650,09	929,75	32.227,02
<i>Adineko pertsonentzako egoitza-arreta</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	5	20	83	154	55	93	37	447
Zenbatekoa	2.138,36	5.346,08	37.129,53	104.293,31	35.833,10	46.613,37	18.835,33	250.189,08
<i>Garraio egokitu edo/lagundua</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	-	-	1	2	1	-	4
Zenbatekoa	-	-	-	231,95	1.626,08	227,16	-	2.085,19
Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala								
<i>Ezgaitasuna dutenentzako eguneko arreta</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	-	-	-	-	1	-	1
Zenbatekoa	-	-	-	-	-	677,4	-	677,40
<i>Ezgaitasuna dutenentzako egoitza-arreta</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	-	-	2	6	1	-	9
Zenbatekoa	-	-	-	1.978,64	57.308,49	977,21	-	60.264,34
<i>Ezgaitasuna dutenentzako aldi baterako egoitza-arreta</i>								
Ordainketa-gutunen kop.	-	-	-	-	1	1	-	2
Zenbatekoa	-	-	-	-	1.201,17	1.123,86	-	2.325,03
<b>Sortutako ordainketa-gutunak, guztira</b>	<b>9</b>	<b>39</b>	<b>185</b>	<b>359</b>	<b>245</b>	<b>247</b>	<b>71</b>	<b>1.155</b>
<b>Sortutako ordainketa-gutunen zenbatekoa, guztira</b>	<b>8.654,84</b>	<b>22.426,66</b>	<b>152.171,52</b>	<b>323.182,68</b>	<b>281.350,11</b>	<b>173.134,39</b>	<b>34.495,65</b>	<b>995.415,85</b>

Aztertutako aldian, SIPSSEk 1.155 ordainketa-gutun sortu zituen, onuradunek bidegabeki jasotako 995.416 euroko kopuruari zegozkionak<sup>1</sup>. Hona hemen atalez ataleko laburpena:

	Ordainketa-gutunen kopurua (%)	Ordainketa-gutunen zenbatekoa (%)
Prestazioen Koordinazio Administratiborako Atala	56	65
Adineko Pertsonentzako Zerbitzuen Atala	43	29
Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atala	1	6

Ikus daitekeen bezala, ordainketa gutunen ehuneko handiena Prestazioen Koordinazio Administratiborako Atalak sortu zuen; ondoren, adineko pertsonentzako zerbitzuak kudeatzeaz arduratzen den atala dator. Desgaitasuna duten Pertsonentzako Atalak soilik ordainketa-gutun guztien ehuneko bat egiten du, nahiz eta hari dagozkion bidegabeko ordainketa guztien ehuneko sei.

Honakoak izan ziren ordainketa-gutun horiek sortzeko arrazoiak:

Arrazoa	Ordainketa-gutunen kop.		Zenbatekoa	
	Kopurua	Gutzizkoaren gaineko ehunekoak	Zenbatekoa	Gutzizkoaren gaineko ehunekoak
Prestazioaren aldaketa, egoitza batean sartzearen ondorioz	505	44	420.462,83	42
Heriotza	441	38	292.722,31	29
Gradu aldaketa/mendetasun maila	60	5	35.183,26	4
Borondatezko baja	27	2	25.061,36	3
Prestazioa aldatzea, onuraduna eguneko zentro batean sartzearen ondorioz	15	1	11.952,28	0,5
Prestazioen bateraezintasunak	12	1	6.485,69	0,3
Zerbitzuari lotutako prestazioa kobratzen hastea	11	0,9	16.152,35	0,7
Akats administratiboa	10	0,8	34.140,99	1,5
Tarifen gaurkotzea	10	0,8	18.985,68	0,8
Beste arrazoi batzuk	64	6	134.269,10	18
<b>Guztira</b>	<b>1.155</b>	<b>100</b>	<b>995.415,85</b>	<b>100</b>

Ordainketa-gutunen ehuneko 44 –gutzizko kopuruaren ehuneko 42ri dagozkio– sortu ziren egoitza-zerbitzu bat hartzen hasterakoan, ordura arte jasotzen zen prestazioaren orde. Arrazoi horren atzetik, arruntena da onuraduna hiltzea, horixe baita bidegabeko kobrantzengatik ordainketa-gutunen ehuneko 38 sortzen duena –aldiko gutzizko zenbatekoaren ehuneko 29–. Ondoren, mendetasun-graduaren edo -mailaren aldaketa dator, eta onuradunaren borondatezko baja. Bestelako arrazoiaren artean, zortzi aldiz edo gutxiagotan gertatu diren inguruabar batzuk sartu dira, aurretik aipatutako arrazoiari dagozkienak.

Esan beharra dago kasuen ehuneko 60an, gutxi gorabehera, bidegabeko kobrantzen itzulketa gertatzen dela aldi berean bi prestazio elkarren gainean gertatzearen ondorioz. Horrek esan nahi du onuradunak itzuli behar dituenak baino funts gehiago jasoko dituela. Inguruabar hori konponduta egon liteke onuradunari ordain bat emanda, izapide administratibo hori saihesteko. Horri

<sup>1</sup> Ordainketa-gutun horiek alde batera utzita, SIPSSEk beste 93 sortu zituen Adineko Pertsonentzako Zerbitzuen Atalean, 1.344.049 euro egiten zutenak, zorraren aitoparen bidezko egoitza-arretaren prestaziorako. Ordainketa-gutun horiek dira gozatu duten prestazioaren zenbateko osoa ordaindu ez duten onuradunentzat dira, baldin eta hil ondoren Administrazioarekin zor bat metatzen hasi badira, une horretatik aurrera berreskuratzen hasten dena. Egiaztatu da ordainketa-gutun horiek Zorra Kudeatzeko eta Kontrolatzeko Bulegoak prozedura egoki batekin kontrolatzen dituela.

dagokionez, esan beharra dago 2014ko urtarriletik Departamentuak jokabide hori jarri duela abian.

Halaber, nabarmentzekoa da prestazioen bidegabeko kobrantza horiek aztertutako aldian PANAK kudeatu dituen prestazio aktiboaren guztizkoaren ehuneko txiki bat direla, ondoren erakusten dugun bezala:

Ekitaldia	Prestazio aktiboak	Bidegabeko kobrantzak direla eta sortutako gutunak	Gutunak/prestazio aktiboak (%)
2007	7.092	9	0,13
2008	11.556	39	0,34
2009	13.846	185	1,34
2010	13.760	359	2,61
2011	14.347	245	1,71
2012	14.098	247	1,75
2013/04/30 arte	11.869	71	0,60
<b>Guztira</b>	<b>86.568</b>	<b>1.155</b>	<b>1,33</b>

SIPSSek sortutako ordainketa-gutunak 2014ko urtarrilaren 31n duten egoera aztertu da, dirulaguntzen itzulketari ekitearen ondorioetarako. Honako taulan erakusten dena da:

	Ordainketa-gutunak, guztira		Kobratuak		Izapidetzen		Beharazte-bidean		Jarraipena egiteko daudenak		
	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Datuak	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	
Familia inguruneke zainketa-erara laguntza ekonomikoa											
Ordainketa-gutunen kop.	522	45	233	45	8	2	36	7	15	230	43
Zenbatekoa	549.396,27	232.839,69	42	5.632,82	1	38.422,95	7	18.414,71	3	254.086,10	47
Etxeko laguntza ekonomikoa											
Ordainketa-gutunen kop.	3	1	33	33	-	-	-	-	-	2	67
Zenbatekoa	7.366,78	3.937,14	53	-	-	-	-	-	-	3.449,64	47
Mendatasuna dutenentzako gutxieneko laguntza											
Ordainketa-gutunen kop.	120	108	108	90	10	8	2	2	-	-	-
Zenbatekoa	90.864,74	80.527,35	89	6.086,43	7	4.250,96	5	-	-	-	-
Adineko pertsonentzako eguneko arreta											
Ordainketa-gutunen kop.	47	41	41	87	-	-	1	2	1	2	4
Zenbatekoa	32.227,02	27.917,95	87	-	-	-	2.250,92	7	22,65	0,1	2.035,50
Adineko pertsonentzako egoitza-arreta											
Ordainketa-gutunen kop.	447	363	363	81	3	1	3	1	10	2	68
Zenbatekoa	250.189,08	183.333,95	73	1.962,17	1	536,98	0,2	7.253,19	3	57.100,79	22,8
Garraio egokitu edo/lagundua											
Ordainketa-gutunen kop.	4	4	4	100	-	-	-	-	-	-	-
Zenbatekoa	2.085,19	2.085,19	100	-	-	-	-	-	-	-	-
Ezgatutasuna dutenentzako eguneko arreta											
Ordainketa-gutunen kop.	1	1	100	100	-	-	-	-	-	-	-
Zenbatekoa	677,4	677,4	100	-	-	-	-	-	-	-	-
Ezgatutasuna dutenentzako egoitza-arreta											
Ordainketa-gutunen kop.	9	6	67	67	-	-	3	33	-	-	-
Zenbatekoa	60.264,34	7.517,12	12	-	-	-	52.747,22	88	-	-	-
Desgatutasuna dutenentzako aldi baterako egoitza-arreta											
Ordainketa-gutunen kop.	2	2	100	100	-	-	-	-	-	-	-
Zenbatekoa	2.325,03	2.325,03	100	-	-	-	-	-	-	-	-
Ordainketa-gutunen kop., guztira	1.155	759	66	21	45	4	26	304	2	316.672,03	26
Ordainketa-gutunen kop., guztira	995.415,85	541.160,82	54	13.681,42	1	98.211,03	10	25.690,55	3	316.672,03	32

\* Diru-laguntzen ordainketa iraungitzeke epea lau urtekoa da eta kontabilitate-erantzukizunarena, berriz, bost urtekoa

Ikus daitekeen bezala, guztizkoaren ehuneko 54ra arteko kopurua duten ordainketa-gutunen ehuneko 66 jada kobratuta daude; gutunen ehuneko lau, guztizko zenbatekoaren ehuneko hamar egiten dutenak, betearazte-bidera igorri dira, Ogasuna haiek kobratzeaz ardura dadin; eta ehuneko bi izapidetze administratiboan daude.

Bestalde, ordainketa-gutunen ehuneko 29 –zenbatekoaren ehuneko 35 egiten dute– jarraipena egiteko daude. Hona hemen gutun horien xehakapena:

- Ordainketa-gutunen ehuneko bi –haien kopuruek guztizkoaren ehuneko hiru egiten dute– iraungita daude, zeren eta ez baitzaie behar den jarraipena egin.

- Gainerako ordainketa-gutunak –guztizkoaren ehuneko 32 egiten dute– ez daude iraungita. Horri dagokionez, esan beharra dago PANAK behar diren lanak hasi dituela jarraipen hori egiteko sortu diren baina iraungi gabe dauden ordainketa-gutunekin.

#### IV.2. MENDEKASUNEN PRESTAZIOA EDO/ETA ZERBITZUA EBAZTEKO EPEAK

Kontuen Ganberak 2013ko ekainean egin zuen txostenean jada adierazle hori aipatzen zen 2010-2012 aldiari buruz hitz egiterakoan. 2013rako datu hori lortu da, eta honakoa da emaitza:

2010eko uztailetik abendura	Batez besteko epea (hilabeteak)		
	2011	2012	2013
14,15	10,9	9,88	9,15

Nolabaiteko hobekuntza antzeman da epean, baina ondoriozta liteke oraindik ere ez dela betetzen ari araudian ezarritako denbora-tarteari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, ondorio horretara iristeko, kontuan hartu beharko litzateke epeak onuradunei egoztekoa den berandutza bat biltzen duela, nagusiki dokumentazioa zuzentzeari dagokiona. 2013ko otsaila eta martxoa hartu dira lagin gisa, eta onuradunari egoztekoa zaion denbora hori kendu da. Honakoa da emandako prestazio edo zerbitzuen emaitza:

	2013ko otsaila		2013ko martxoa	
	Espediente kopurua	Ebazteko batez besteko epea	Espediente kopurua	Ebazteko batez besteko epea
Familia inguruneko zainketetarako laguntza ekonomikoa	78	8,89	75	8,20
Ezgaitasuna dutenentzako egoitza-arreta	3	5,32	2	2,32
Adineko pertsonentzako egoitza-arreta	84	5,64	76	4,29
Adineko pertsonentzako eguneko arreta	2	6,87	2	9,05

Ikus daitekeen bezala, denbora jaisten joan da; izan ere, 2013ko otsailetik martxora dagoen batez besteko epea 6,71 hilabetekoa da, eta nahiko hurbil dago araudian ezarritako sei hilabeteko epetik.

#### IV.3. ONURADUNEN AHALMEN EKONOMIKOA ETA MENDEKASUNAREN KOSTURAKO EGITEN DUTEN EKARPENAK FINKATZEKO NAFARROAN APLIKATZEN DEN ARAUDIA, BERDINTASUNAREN PRINTZIBIOA BETE DADIN BERMATZEKO

Nafarroan, araudi berariazkoa dago onuradunen ahalmen ekonomikoa eta mendekasunaren kosturako egiten duten ekarpena finkatzeko. Honakoa da araudi hori, hain zuzen:

- 210/2009 Foru Agindua, ekainaren 1ekoa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak arautzen dituena.
- 17/2000 Foru Legea, abenduaren 29koa, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabil-tzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena.
- 82/2011 Foru Agindua, martxoaren 8koa, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak emana, zerbitzuari lotutako prestazioen zenbatekoa ezartzen duena 2011. urterako<sup>2</sup>.
- 732/2012 Foru Agindua, abenduaren 24koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, zerbitzuari lotutako prestazioen zenbatekoa ezartzen duena<sup>3</sup>.
- 62/2013 Foru Agindua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Politiketako kontseilariak emana, mendekasuna dutenentzako laguntzaren arloko hainbat prestazio eta zerbitzuren arteko bateragarritasun araubidea ezartzen duena eta mendekasuna duten pertsonak etxean gelditu eta haien zaintzaileei sostengua emateko laguntza ekonomikoak arautzen dituena.
- 196/2013 Foru Agindua, otsailaren 27koa, Gizarte Politiketako kontseilariarena. Haren bidez, arautzen dira mendekasuna duten pertsonen laguntzaile pertsonala izateko diru-laguntzak.

Aurreko arau guztietan, oro har, ezartzen da ezen prestazio jakin bat jasotzeko eskubidea ematen duen mendekasun egoera zehatz bat aitortu ondoren, onuradunek parte hartuko dutela jasotzen dituzten zerbitzuen finantzaketan .

Onuradunek mendekasunaren kostuan egiten duten ekarpena ezartzeko edo zenbait diru-laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, gaitasun ekonomikoa hartzen da kontuan, eta hura honako elementuen arabera kalkulatu da:

- Errenta: familia unitate batek lan-etekin bidez dauzkan diru-sarreraren (horren barne dira pentsioak eta gizarte-aurreikuspeneko prestazioak), higigarrien kapitalaren nahiz higiezinaren kapitalaren eta azken zerga-ekitaldiko enpresa- edo lanbide-jardueren guztizkoa, haien deklarazioa aurkezteko epea amaitu denean.
- Ondarea: onuradunaren kapital higigarriaren (bankuetako gordailuak, inbertsio funtsak, pensio-funtsak, arte-objektuak, bitxiak eta abar) eta higiezinaren kapitalaren (landa- eta hiri-izaerako ondasunak) guztizkoa, prestazioaren azken bost urteetan baloratua. Guztizko horretatik, honako alderdiak kenduko dira, betiere, ondareari buruzko araudi indardunari erreparatuta:
  - a) Horren balioa gutxitzen duten zamak eta zergapetzeak, bai eta onuradunak, aplikatzeko den araudi fiskalaren arabera, erantzun beharreko zor eta betebeharrak ere.
  - b) Ohiko moduan, era pertsonalean eta zuzenean unitateko kideek egiten duten enpresa- edo lanbide-jarduera garatzeko familia-unitateak behar dituen ondasunak eta eskubideak, unitatearen errentaren iturri nagusia badira.

<sup>2</sup> Mendekasun handiko eta mendekasun larriko egoerak aitortzeko 2012ko uztailaren 15a baino lehenago emandako ebazpenetarako, non gradua eta maila adierazten diren, baldin eta prestazioaren xedea den zerbitzuan sartzea 732/2012 Foru Aginduak indarra hartu aurretik gertatu bada.

<sup>3</sup> 2012ko uztailaren 15etik aurrera onetsitako mendekasun gradua duten onuradunentzat, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin; halere, interesdunaren onurarako eraginak baldin baditu, 2012ko uztailaren 15ean hartuko du indarra.

c) Ohiko etxebizitza, familia-unitateko kideren batek hor bizitzen jarraitzen badu. Titularkideak baldin badaude, soilik dagokion portzentajea hartuko da kontuan.

Elementu hori kasu guztietan hartzen da kontuan, ehuneko 33ko desgaitasun psikikoa edo gehiagokoa duten pertsonen kasuan eta ehuneko 65eko desgaitasun fisikoa edo sentsoriala edo gorakoa dutenen kasuan izan ezik, zeren eta Desgaitasuna duten pertsonen ondarea babesteko eta Kode Zibila aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen, Prozedura Zibileko Legearen eta Tributu Araudiaren arabera haien ondarea ondorio horietarako kontuan hartzetik salbuetsita baitago.

- Familia-unitatea: 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuan, Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko testu bategina onesten duenean, definitzen den bezala. Honakoa dio, hain zuzen:

*“Berariazko legeen arabera bikote egonkor bateko kideek eta adingabeko seme-alabek osatutakoa (gurasoen baimena izanda beraiekin bizi ez direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, judizialki ezgaituta eta guraso-aginte luzatu edo birgaituaren menpe dauden adin nagusiko seme-alabak”.*

Aurrekoari gehituta, araudiak ezartzen du ezen, pertsona erabiltzaileek ez badute ordaintzen dagokien ekarpen ekonomikoa, zor bat sortuko dutela administrazioarekin; honakoa izanen da zor hori: ekarpenaren eta erakunde horrek bere zentro berekietarako, itunduetarako edo foru erkidegoaz kanpoko zentroetarako finkatutako prezioaren arteko aldea. Zor hori kobratuko dela ziurtatzeko, berme pertsonal edo errealak eratu behar dira; horretarako, zuzenbideak ezarritako edozein bide erabili ahalko da. Betebehar horretatik salbuetsita daude hirugarren adinekoentzako eguneko zentroetako erabiltzaileak, familiek atseden hartzeko edo beste arrazoi batzuegatik zentroetan aldi baterako egonaldiak egiten ari direnak eta desgaitasuna duten pertsonak, beren ondarea babestuta baitago, adierazi bezala.

Azkenik, aurreko erregulaziotik honako alderdi hauek nabarmendu behar dira:

- Prestazio bakoitzerako ordaindu beharreko gutxieneko eta gehieneko zenbateko batzuk ezartzen dira.

- Errentako gutxieneko batzuk jasotzen dira, mendetasunaren kostuaren finantzaketan parte hartzeko ekarpenetik salbuetsiak. Gutxieneko horiek Ondorio Askotako Errenta-adierazle Publikoaren (IPREM) arabera ezartzen dira, eta jaso beharreko prestazioaren arabera dira, baldin eta babes sozialeko araubide publikoetatik heldu den eta antzeko izaera duen beste laguntzarik jasotzen ez badute.

- Mendetasuna duen pertsona errentaz baliatu ahal izateko gutxienekoen berme-araubide bat aurreikusten da.

Azken batean, ondorioztatzen da araudiaren irizpideek bermatu egiten dutela herritarren artean eta ekarpena egiteko gaitasunaren arloan berdintasunaren printzipioa bete dadila.



#### IV.4. NAFARROAK ESTATUTIK JASOTAKO FINANTZAKETA MENDEASUNARI BURUZKO LEGEA APLIKATZEAGATIK, 2009-2013 ALDIAN

Gainerako autonomia erkidegoetan bezala, mendetasunaren gastuaren finantzaketa hiru eragileren bitartez egiten da: Estatua, Foru Administrazioa eta prestazioaren edo zerbitzuaren onuraduna.

Finantzaketa horren egitura, 2011ko eta 2012ko ekitaldietarako, Kontuen Ganberak Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioa dela-eta 2013ko ekainean egindako txostenetan aztertu zen jada.

	2011		2012	
	Zenbatekoa (eurotan)	Eragile bakoitzaren finantzaketa (%)	Zenbatekoa (eurotan)	Eragile bakoitzaren finantzaketa (%)
Nafarroako Gobernuaren gastua	107.699.700	70	95.669.268	69
Prestazioen erabiltzaileen kuotak	32.226.048	21	30.503.209	22
Estatuaren ekarpena	13.081.123	9	12.569.028	9
<b>Guztira</b>	<b>153.006.871</b>	<b>100</b>	<b>138.501.706</b>	<b>100</b>

Estatuak autonomia erkidegoei egiten dien ekarpena mendetasun gradu eta maila bakoitzeko urtero finkatzen den gutxieneko babes mailarekin kalkulatu da. Nafarroaren kasu zehatzeko, legeak aurreikusten du Estatuari dagokion finantzaketa kontuan hartuko dela Nafarroako Estatuaren Administrazio Orokorarentzat egiten duen ekarpenaren kalkuluan, bi erakundeen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren arabera. Hori dela eta, adostutako prozedura da Nafarroak Estatuari egiten dion ekarpenetik kenduko duela onuradun bakoitzeko gutxieneko mailarengatik eta itunaren bidez jaso beharko lukeen zenbatekoa.

Ondoren erakusten dugu Estatuak mendetasun gradu eta maila bakoitzarengatik finantzatu-tako gutxieneko mailaren bilakaera, eurotan:

Ekitaldia	Graduak/mailak					Araubidea
	III. gradua		II. gradua		I. gradua	
	2. maila	1. maila	2. maila	1. maila	2. maila	
2007	250,00	170,00				614/2007 Errege Dekretua
2008	258,75	175,95	100,00			6/2008 Errege Dekretua eta 179/2008 Errege Dekretua
2009	263,93	179,47	102,00	70,00		74/2009 Errege Dekretua
2010	266,57	181,26	103,02	70,70		373/2010 Errege Dekretua
2011	266,57	181,26	103,02	70,70	60,00	
2012ko urtarrila-2014ko uztaila	266,57	181,26	103,02	70,70	60,00	569/2011 Errege Dekretua
2012ko gainerakoa	231,28	157,26	89,38	61,34	52,06	20/2012 Errege Lege-dekretuko xedapen iragankorra
2013	231,28	157,26	89,38	61,34	52,06	

Ikusten den bezala, orokorrean, maila 2010era arte handitzen joan zen; 2010ean egonkortu egin zen eta 2013ra bitarte jaisten joan da<sup>4</sup>.

Gutxieneko mailaren zenbatekoa finkatu ondoren, Estatuak autonomia erkidego bakoitzeko onuradunei eta prestazioei buruzko informazioa behar du. Honakoa da Nafarroak Estatuari informazioa igortzeko prozedura:

<sup>4</sup> 2014an gutxieneko maila berriz aldatu da, 1050/2013 Errege Dekretua onestearekin; izan ere, haren 4. artikulua honakoetan oinarritutako kalkulu-formula bat ezartzen du: onuradun kopurua, mendetasun graduak eta maila, eta familia-ingurune zainketa balioa gutxitzen duten haztapen-koefizienteak.

- Mendetasuna baloratzeko eta aitortzeko espedienteak itzuli ondoren, informazio hori guztia egunero Nafarroatik Estatura igortzen da, bai eta mendetasunaren prestazioei edo balorazioei buruzko balizko aldaketak ere.

- Onuraduna hilez gero, 2011ko abuztura arte PANAK egitate hori ezagutzen zuen haren berri berriaz ematen ziotenean. Alabaina, data horretatik aurrera, prozedurak nabarmen egin du hobera eta egunero hildako pertsonen gurutzatze bat egiten da beste departamentu eta erakunde batzuekin: Osasun Departamentua (banakako osasun txarteleko bajak), Ogasun Departamentua edo IMSERSO. Hildako pertsonen buruzko informazio hori SISAADi igortzen zaio hileroko.

- Estatuak informazio hori lortuta, hiruhileko likidazio bat igortzen die; laugarren hiruhilekoa behin-behinekoa izanen da, hurrengo ekitaldiaren hasieran behin betikoa iritsi artekoa. Hori dela eta, ekitaldi bateko behin betiko likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuan kontabilizatzen da. Hurrengo taulan 2009-2013 epeko diru-sarrerak erausten dira, eurotan:

Ekitaldia	Zenbatekoa
2009	21.357.649
2010	18.024.368
2011	12.358.293
2012	12.555.396
2013	11.588.004
<b>Guztira</b>	<b>75.883.710</b>

Ikusten da Nafarroak Estatutik jasotako diru-sarrerak nabarmen jaitsi direla; zehazki, 2009-2013 epean jaitsiera ehuneko 46koa da, funtsean gutxieneko maila jaitsi izanaren ondorioz.

2013ra arte, Nafarroak likidazio horiei buruz jasotzen zuen informazioarekin, ezin zen egiaztatatu Estatutik jasotako kopurua zuzena zen ala ez.

2013ko otsailetik aurrera, Estatuko Administrazio Orokorrak emandako informazioaren kopurua eta kalitatea nabarmen hobetu da, eta hileroko Gizarte Politiketako Departamentuari fitxategi bat igortzen zaio onuradun bakoitzeko gutxieneko mailaren likidazioarekin, betiere SISAADen dagoen informazioaren arabera. Datu horiek aukera ematen diote Departamentuari egiaztatzeko hileroko likidazio zehatza zuzena den ala ez.

Gainera, aurreko likidazioak zuzenak ziren ala ez egiaztatzeko, Gizarte Politiketako Departamentuak IMSERSOri eskatu zion 2007ko apiriletik 2013ko otsailera bitarteko datuei buruzko fitxategi historiko bat bidaltzeko. Txosten hau idazteko unean jasotako azken fitxategia 2013ko azaroari dagokio.

Fitxategi horrekin, onuradun bakoitzeko jakin daiteke Nafarroako zer kobratu duen Mendetasunari buruzko Legea aplikatzen hasi zenetik, eta egiaztatzea kopuru horiek bat ote datozen SIPSSen jasotako informazioarekin, eta egiaztatzea daiteke, horrenbestez, aurreko ekitaldietako likidazio horiek zuzenak izan diren.

Lan handia da hori, eta prozedura zehatz bat eskatzen du datu baseak gurutzatzeko eta sortzen diren gorabeherak ebazten joateko. Izan ere, SIPSSen dagoen informazioa IMSERSOren fitxategi historikoan dagoena 2013ko azarora arte lortutako informazioarekin gurutzatzeko proba bat egin zen, eta 500 eurotik gorako eta -500 eurotik<sup>5</sup> beherako aldeak kontuan izan gabe, erregularizatu eta aztertu beharreko 4.741 desberdintasun aurkitu ziren kobrantzetan. Emaizta horrek erakusten du nolako lan bolumenak eskatzen duen informazio-azterketa horrek.

<sup>5</sup> Finantzaketan zenbateko negatibo batzuk bazeuden, SISAADen akats baten ondorioz.

**Horrenbestez**, onuradunei buruzko banakako informazioa ez izatean, ezin izan dugu egiaztatu Nafarroako gutxieneko mailaren kontzeptuan jaso duen finantzaketa, araudiak ezarri bezala, arau indardunetan ezarritakoaren arabera gauzatu den.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago 1050/2013 Errege Dekretuak indarra hartzearekin (2014ko urtarrilaren 1etik aurrera), likidazioetako akatsak ezin izanen direla gertatu, 5. artikuluan aipatzen den bezala. Zehazki, artikulua horrek prozedura bat ezartzen du autonomia erkidegoei eginiko likidazioetako gorabeherak saihesteko. Hartara, esaten da autonomia erkidegoek hileru ziurtagiri bat igorri beharko dute, onuradunen eskubidearen eraginkortasunari buruzkoa, altak, bajak, lekualdatzeak, azterketak, eteteak edo bestelako aldaketak nabarmenduz IMSERSOK gastu-espediterearen izapidetze ekonomikoa has dezan. Likidazioa egingen da baldin eta alderik ez badago ziurtagiri horren datuen eta SISAADen dauden datuen artean. Alderik ez badago, haiek ebazten edo argitzen ez diren bitartean ez zaio autonomia erkidegoari dagokion likidazioa ordainduko.

Aurrekoaz gainera, 2009an, lankidetzaz hitzarmen bat sinatu zen Osasun eta Gizarte Politiketako Ministerioaren –Helduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren bitartez– eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean. Hitzarmen horren bidez, Ekonomia eta Enplegua dinamizatzeko Estatua-ren Funts Bereztan aurreikusitako kredituak transferitzen dira. Funts hori, izan ere, 9/2008 Errege Lege-dekretuan araututa dago. Kredituak, berriz, mendetasunaren arretarekin lotutako jarduketetan erabiliko dira. Zehazki, Nafarroak 5.802.045 euro jaso zituen eguneko zentroen eta egoitza gisako lojamendu-zerbitzuen eta prebentzio zentroen nahiz autonomia sustatzeko sareko eskaintza finkatzeko eta hobetzeko jarduketetarako eta mendetasunari arreta emateko zentro eta zerbitzuetako tokien eskaintza zabaltzeko.

Hasieran esleitutako zenbatekotik, Nafarroak guztira 5.675.997 euro gastatu zituen. Gaur egun kasuko prozedura administratiboak gauzatu ari dira gainerako kopurua, 126.048 euro, Estatuari itzultzeko.

#### IV.5. NAFARROAREN ETA IMSERSOREN ARTEKO LANKIDETZA PRINTZPIOAREN BETETZEA SISAADI IGORRITAKO INFORMAZIOAREN KONTROLEAN ETA ETENGABEKO GAURKOTZEAN

Mendetasunari buruzko Legeak aurreikusten du Estatuko Administrazio Orokorrek komunikazio-sare bat jarriko duela SISAADen eskura, haren bitartez osakideen arteko informazio trukea errazteko eta babes-bermeak emateko, halako moduz non autonomia erkidegoek araudi horren aplikazioaren inguruko datuak Estatuko sistemari igorriko dizkioten. Datu horiek, funtsean, sistemaren azpiegiturei eta prestazioen onuradunen egoerari, graduari eta mailari buruzkoak izanen dira.

Datuen truke horrek, beste xede batzuetarako erabiltzeaz gainera, helburu du autonomia erkidegoetatik gutxieneko mailaren kontzeptuan jasotako finantzaketaren funtsa izatea, zeren eta autonomia erkidego bakoitzak kopuru bat jasoko baitu, legez ezarria, onuradun bakoitzeko, daukan mendetasun graduaren eta mailaren arabera, aurreko atalean azaldu den bezala.

Kontuen Epaitegiak 2013ko martxoan txosten bat egin zuen Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioari buruz, eta bertan aztertzen zuen autonomia erkidegoen eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko informazio-truke hori. Nafarroari buruz, honakoa zioen:

Foru erkidegoak bidegabeko kopuru batzuk jaso zituen Estatuko Administrazio Orokorretik, erregularizatzen joan direnak, hiru arrazoi tarteko:

- Hildako onuradun batzuk SISAADen alta emanda egotea baina SIPSSen ez egotea, heriotza horien sistema informatikoen arteko komunikazioan akatsak izatearen ondorioz, eta IMSERSOK SISAADI buruzko barne-kontrol egokirik ez edukitzearen ondorioz. Txostenean gorabehera hori dela-eta jasotako xehetasunak honakoak dira:

a) 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra datu baseen artean egindako informazio-gurutzaketan, egiaztatu da hildako 1.191 onuradun bazeudela SISAADen alta eman gabeak baina SIPSSen bazeudenak; hori dela eta, Nafarroak haiengatik kobratzen jarraitu du Estatuko Administrazio Orokorretik. Izan ere, bide horretatik 5.094.441 euro kobratu ditu.

b) Datuen beste gurutzatze bat egiten da 2011ko apirilaren 30era arte, eta Nafarroan hildako 510 onuradun daudela aurkitu da. Horrenbestez, behar baino 1.885.557 euro gehiago ordaindu dira.

Hildakoak jasotzeko eta datu hori SISAADi igortzeko tratamendu informatikoa nabarmen hobetu denez, aurretik deskribatu den bezala, 2011ko abuztutik aurrera bermatuta dago bi datu base horietan dagoen informazioa zuzena dela.

- 2011ko apirilaren 30ean, 11 espediente daude. Haien bidez, 1.625 euro kobratu dira telelaguntzaren prestazioaren gutxieneko mailaren kontzeptuan. Alabaina, hori prestazio osagarri bat da, Estatuko finantzaketaren eraginetarako kontuan hartu behar ez dena.

Gaur egun, ezinezkoa da arrazoi horrengatik bidegabeko kobrantzak gertatzea, zeren eta 2010etik prestazio hori beti beste batzuekin batera ematen baita, eta horiek bai dira Estatuaren finantzaketaren xedea.

- 2011ko apirilaren 30ean, 141 espediente badaude 504/2007 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik III. graduko 2. mailan aurreikusitako gehieneko kopurutik gora metatutako zenbateko likidatuak dituztenak. Bidegabeki jasotako kopurua 1.078.3025 eurokoa zen.

Halaber, Kontuen Epaitegiaren txostenean agerian jartzen da SISAADen ageri diren 51 espediente badaudela, 15.465 euroko finantzaketa-kopuru negatiboak dituztenak eta jada erregularizatu direnak. Hori jotzen da SISAADen kudeaketa-akats bat izan dela, zeren eta inguruabar hori ez baita posible, eta sistema informatikoak horretaz ohartarazi beharko lukeelako.

**Horrenbestez**, autonomia erkidegoen eta IMSERSOren arteko informazio-gurutzatzeak, funtsean Mendetasunari buruzko Legearen aplikazioaren hastapenetan, eragin zuen zenbait gora-behera gertatzea datu base desberdinetako datuetan, eta horrek eragina izan zuen Estatuko Administrazio Orokorrek emandako finantzaketan. Hala eta guztiz ere, denborak aurrera ahala, aplikazio informatikoak eta prozedurak nabarmen hobetu dira, eta horrek ekarri du orain Nafarroak arrazoiz betetzea IMSERSOrekiko lankidetzaren printzipioa, SISAADek igorritako informazioaren kontrol eta gaurkotze iraunkorrari dagokionez.

Txosten hau auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2014ko martxoaren 20an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas